

PRENTSA OHARRA

NAGUSILAN AMURRIO, ADINEKOEN GIZARTE-BOLUNTARIOTZA, 2022KO URREZKO GUK SARIAREKIN AINTZATETSIA

- **Saria emateko gala martxoaren 19rako, larunbaterako, dago aurreikusita, Amurrio Antzokian; ospakizunak une horretan erakundeek hartutako neurriak bete beharko ditu.**

Amurrión, 2022ko otsailaren 4an. Nagusilan Amurrio, adinekoen gizarte-boluntariotzak 2022ko urrezko Guk saria jasoko du aurten, martxoaren 19rako, larunbaterako, Amurrio Antzokian aurreikusita dagoen galan. Ekitaldia gauzatzeko orduan, erakundeek une horretan hartutako neurriak bete beharko dira. Adostasunez aukeratutako Nagusilan Amurriok, Udaletik lantzen diren balioak biltzen dituelako jaso du aintzatespena, hala nola nahi ez den bakardadearen aurkako borroka eta zahartze aktiboaren aldeko lana.

Nagusilan Amurrio, udalerrian ongi txertatutako ekimena da. Gaur egun 25 boluntariok, 17 emakumek eta 8 gizonak, osatzen dute. Talde honen helburua nahi ez den bakardade-egoeran dauden adinekoen beharrian sozialei eta afektiboei erantzutea da, borondatezko laguntzaren bidez. Era berean, zahartze aktiboa eta solidarioa sustatzen dute, beti ere jarduera desinteresatuen bidez.

Ekimen hori alde zuzeneko errealitate batetik sortu zen. Errealitate horretan, laguntza lanetan eta eskualdeko egoitzen eta etxeen animazioan nolabaiteko ibilbidea zuten Nagusilan berarekin eta Osasun Pastoralarekin erlazionatutako taldeek egin dute bat. Horrez gain, boluntario batzuen lan independentea eta Amurrioko Adinekoen Kontseiluaren bultzada sendoa ere jaso dira. Horrek guztiak dagoeneko erantzun koordinatua ematen dio udalerriko pertsona askok nahi ez duten bakardade-egoerari,



eta, horren ondorioz, Amurrioko adinekoen bakardade-egoerarekin sentsibilizatuta dauden boluntarioen ondo egituratutako taldea sortzen da. Uste dugu Urrezko Guk sariak, gure gizartean lehentasunezkoak izan behar duten gizarte-balioak dituen Nagusilan Amurrio moduko gizarte-ekimenei balioa emateko balio behar duela. Euren denbora besteei laguntzen ematen duten pertsona boluntarioek eta solidarioek amurriotarrek emandako aintzatespen hori merezi dute”, azaldu du Txerra Molinuevo Amurrioko alkateak.

Informazio gehiago:

Maite González Bilbao

666 114 705

prentsa@amurrio.org